

Algerian gerlari



Pierre **A**inciart*

Hau lekukotasun bat da, Aljeriako gerlaz: noiz, non eta nolakoa izan zen. Mendietan ibiltzeak, gau eta egun, delako «crapaüt» haietan, garbiketak, miaketak... Orduko giro militar eta politikoaz bi hitz. Kondatzen ditut gertakari dorpeak, eta adierazgarrienak, hilak. Aipatzekoak dira, tortura, gure akidura, beldurak, artetan etsipena, ihardokitzea, etsaiari buruzko herria, baina ere gure arteko adiskidantza: irriak, nigarrak, eguneroko bizia .

Giltza-Hitzak: Oran. Ain-Sefra. Douar. Djebel. Crapaüt. Fellag(h)a. Arrastelada. Tortura.

Il s'agit d'un témoignage sur la guerre d'Algérie: quand, où et comment elle eut lieu. Les marches de jour et de nuit dans la montagne, interminablement, les nettoyages, les fouilles... Quelques réflexions sur l'ambiance militaire et politique du moment. Je rends compte des faits les plus graves et les plus significatifs, les morts. Il est question de la torture, de notre fatigue, de la peur, du découvrage parfois, de la résistance, de la haine pour l'ennemi, mais également de l'amitié qui règne parmi nous: les rires, les larmes, la vie quotidienne.

Mots Clés: Oran. Ain-Sefra. Douar. Djebel (terrain montagneux). Marche. Fellagha. Coup de file. Torture.

Se trata de un testimonio sobre la guerra de Argelia: cuándo, dónde y cómo tuvo lugar. Caminar día y noche por el monte en marchas interminables, las limpiezas, los registros... Algunas consideraciones sobre el ambiente militar y político del momento. Doy cuenta de los hechos más graves y significativos, las muertes. Se habla de la tortura, nuestro cansancio, el miedo, el desánimo ocasional, el combate, el odio al enemigo, pero también de la amistad entre nosotros: risas, lágrimas, vida cotidiana.

Palabras Clave: Orán. Ain-Sefra. Douar. Djebel (terreno montañoso). Marcha. Fellag(h)a. Redada. Tortura.

* Résidence Candelé 12 allée Dussart 64990 Hiriburu/St. Pierre d'Irube.

Hogoi minutu ditut beraz ene Aljeriako gerlaz zerbait errateko: aski zait nahi dudana mintzatzeko. Ohar batzuk naski gaian sartu aitzin:

Ordu zen Frantziak jakin zezan han zer gertatu den, gauza guziak, onak eta txarrak, sekula ez balinbadira agertzen ere. Eltzeari boneta altxatu bederen zaio azken urte hauetan. Datuak hor dira eta erraiten den bezala, «datuak sakratuak», komentarioak aldiz libre, ez bainaiz historialaria. Han galdu ditudan lagunak, eritu direnak, bere buruaz beste egin dutenak, haiek ez dira libro. Artetik errateko, nihaurek egina dut ja terapia, idatzi eginik duela dotzena bat urte eta gaurko lan gehiena nihauren «plagiat» bat da! Bilduma.

Orotarara 28 ilabete egon naiz soldado, 14 Frantzian, Fréjus hirian, eta 14 Aljerian: Infanterie de Marine, la «Coloniale» delakoan nintzen altxatua izan. Apezgai nintzen. Frantzian iragan denboraz ez dut deus erranen, bakarrik beste apezgai adiskide batekin, ofizier izatea errefusatu nuela: «Section disciplinaire» batean ezarri gintuzten baina zigor arinekin, adibidez gauaz 20 kilometro zalu egitea. Baina zera da: apez edo apez gai baten eginbidea zen ofizier izatea. Aljeriara joanen naiz beraz gaur segidan, ene gerla baita gaurko gaia. Erran dezadan hastetik hango mendi batean nauela gau batez apezgo-bokazioari buruzko dudaren aztaparrak sesitu eta bi urtez tinko atxiki: hori erraten dut barneko gerla Aljeriako baina asko latzagoa izan zitzaidalakotz baina azken hau dut orain aipatzekoa.

1959 ko azaroan hartu ginuen ontzia, Marsellan. Gau osoa ontziaren sotoan metaturik pasatu ginuen, frango goxoki Euskaldunek, musean arizanik. Goiz argian, Oran hirian ginen eta bihamunean Ain-Sefra buruz abiatu, Tlemcen eta Mecherian pasatuz. Ain-Sefra Oranetik 400 kilometrotan da. Hango mendilerroa, Djebel Ksur. Marokoko muga ez zen handik urrun eta beraz fellagak baziren auzo herrian, Aljeriara pasatzeko prest. Ain-Sefra gure «base arrière» delakoa zen baina ez ginen han egon beharrak: Chellala Dahrana zen gure helburua, 1.400 metro gora den herrixka, douar bat, ura baitzen. Bazterrak segidan xuko eta mendiak biluzirik: han bildua daukat basamortuaren tira! Oihal-etxe alimale batzuetan egon gara han eta laster laketu nintzen bizi molde horretan, aski akiturik lo egiten baiginuen etzan orduko, delako operazio haien ondotik. Egun osoak ibiliko gara urte batez, astean hiruzpalau aldiz jalgirik, artetan gauaz edo goizeko hiruetan abiatuz: orduan, nor trago on bat emaiten ziguten. Erraten hasia zen jendea gerla militarki irabazia zuela Frantziak, baina guk ez dugu hori senditu. 600 bat soldado ginen gune hartan eta urte batez 26 lagun hil izan dira: bi edo hiru elgar-jotze (embuscades delakoak) aski izan ziren, baina 1960 urtean zehar zer nahi kilometro egin ditugu inor kasik ikusi gabe.

Nik, ene konpainiako sektionekoak ditut kondatzen. Lagunak banituen beste douaretan, Asla eta Boussemghounen bereziki. Eta orain gertakizun, datu zenbaiten zerrenda bildu batera noa.

Fisikoki prest ginen, zeren Chellalan puskak pausatu orduko, bihamunean, pistetan eta mendien harroketan ezarri gintuzten, miatuz eta miatuz aritzeko:

hori zen «ratissage» delako operazioa. Rutina. «Garbiketa, nettoyage», erraten zen bezala. Zakurrak baginituen bazterren eta ziloen zurruntzatzeko. Denborarekin caporal-chef pasatu nintzen eta banuen ene ekipa:izigarri adiskide ginen, bat bakarrik bazter egonen zelarik, Kerfali Berberoa, bortxaz Frantziak altxatua, F.S.N.A.: Francais de Souche Nord-Africaine jatorriz Ipar Afrikan Frantsesak gisa. Arrats batez oldartu zitzaigun, gure «gitounaren» ohean eta bere arma hartu zuen, erranez ez zuela gurekin borrokatu nahi. Joan zen.

Gertakari zehatz batzuk orain, naski. Bi edo hiru aste Chellalan garela eta buruzagiek erraten digute Bigeard jeneralarekin behar dugula ibili, «craçaüt» delako oinezko ikerketetan, eta beraz prestatu «Bigeard zakua, le sac Bigeard» 7 kilokoa. Ai to! Eguberri pasatzen zaigu, nik hasteko etxeakoak gogoan eta ere Baigurako bordako bildotxak. 1960ko urtarril erdian, deskantsu egun bat hartzen dugu Ain-Sefran, zinemara joateko. Pentsa! Lehenago Uztaritzeko Seminario Ttipian bezalaxe! Baina orduan jakiten dut hiriaren gainean dagoen harepilan ehorzten direla torturatuak edo garbituak izanak diren etsaiak: hori zen delako «Corvée de bois» hura: lan hori Legionnaires soldadoek egiten dute. Dator urtarrilaren azken astea, «Barrikaden astea», Aljer hirian. Zango beltzen beldurra, biltzeak, oldarrak, jandarmak eta tiroketak: Benjamin Storak dienez: 20 hil orotara. Orduko izen ezagutuena, naski: Lagailarde, Ortiz. Orduan du, ez dakit zergatik, Bigeardek Frantziarat itzuli behar izan eta guk: «uf!»

Laster badakigu torturatzen dela gure kanpamenduan, ez ikusirik, baizik entzunik oihuak, ez urrun ta luzaz. Egunean zehar akituak ibili ondoan, ezin lokartuz egoiten ginen artetan, garrasien gatik. Nik ikusi dudana bakarrik hau:goiz batez gizon bat, hetrepel, bizkarra larriki sistaturik eta odoletan. Gai horretaz ari bainaiz, geroxago, apirilan edo, Asla douarean zen apezgai adixkide Paueko Claverie jin zitzaidan ikustera, harriturik, jazarririk Aslan ikusia zuenaren gatik: kanpoan, denon aitzinean torturatuak izan zirela fellagak. Segidan joan ginen omonieraren ikustera eta erran zigun: «Ce ne sont pas des hommes». Gu ez ginen heroiak eta hortan utzi ginuen. Baina gerla zer da, eta bereziki gerilla? Nun da etsaia? Mendian. Jakin behar da nun den. Baina sistematikoki sofriaraztea, basakeriaz eta plazerrez? Bai, plazerrez. «J'y prends plaisir» aitortu zigun argibide ofizier gazteak

Martxoaren hastapena. Erran digute gauaren erdian behar dugula jalgi «pour tendre une embuscade». Eta goizaldean atzarri gare gure oheetan, gostuan. Zer gertatu ote da? Gau berean dituzte fellagek gureak uste gabetarik atxeman: hamabi hil eta gu joan gara tokira, armarik gelditzen zen ikusteko. Deus, bakarrik zakurrak, han berean utziak.

Apirila zen, oroi naiz. Jalgi aldi txar bat, deus: bi, hiru kilometro? Jarririk egon gara pista bazterrean oren bat edo eta kanpamendurat itzuli. Bitxia zait ateraldia eta kapitainari galdegiten diot gauzaren arrazoia eta harek Legionnaires soldadoak pasatu direla eta douareko hamar notable kanpamenduaren plazan, lerrokatu ondoan, fusilatu dituztela. Urrunduak izanak ginen. Oro naiz ere maiatzaren erditsuan gaitzeko operazioa egin ginuela, helikoptero eta hegazkinak hor zirela. Erran dezadan ahantzi gabe napalm orbainak ikusi ditugula egun batez, harkaitzen gainean.

Djebel Tammedan ikusia ere ez dut ahanztekotan. Ain-Sefran nintzen beste apez gaiekin erretreta bat egin beharrez eta aipatu dudan mendian izan zen egun batez elgar-jotze, «accrochage» izigarria, baina oraikoa fellagak galtzaile, hil guziak (ez balin baziren guziak hil) haien eskualdekoak izan baitira: berrogoi bat omen. Joan behar izan dugu harat. Zergatik, zertako? Ez dakit. Beraz han gara, mendi lepo batean. Ez dut egundaino holakorik ikusi. Hiru edo lau egun hor zirela. Gazte hutsak, hamasei, hamazazpi urte: bisaiak ja hantuak, iduri bizi zirela gizon gazteak. Orduan jestu bat eskapatu bezala zait. Jalgi aldi bakoitz hartzen nuen ene Brownie-Flash argazkigailua, hau edo hura atxikitzeko, lagun, alimale, mendi konkorr, zer nahi, oroitzen gisa. Eta orain hilotz bat, klisk klask. Eta laster ene buruari egin diot: «Tu es dégueulasse.»¹ Argazkigailua ideki dut eta filma xintxifikatu. Gure buruzagi axuantak nahi izan zuen hilen erdian, hilikiteki hartan bazkal gintezan, eta guk, segidan, ezetz.

Bestela nihaurek eta ene sekzoneko lagunek ez ginuen errekontru handirik ukan. Halere lehen aldikotz tiro bat entzuten denean, ez da baitezpada gauza goxoa. Gertatu zitzaigularik holakoa, ene baitan egin nuen: «Egun batez behar ginian guk ere ikusi zer den». Etzanak ginen eguerdi hartan eta gehienak lo, akituak eta higatzen hasiak baiginen, beti kurri eta. Tiroak brau xutiarazirik, abiatu ginen talwegari buruz: «Voltigeurs» delakoetarik bat bainintzen, behar nuen aitzinean pasatu, beste kaporal-txefarekin, sardienta ginuela gidari. Baginakien, berak erranik hasteko, ihiztari ona zela: errana zigun bezperan berean ja hamasei fellaga hil zituela. Nik espantu guti biharamunean, baina sardientaren baitan konfiantza osoa! Ez dakit nola, bi fellagak (biak jan-edan hornitzaileak ziren) senditu zituen eta xutiarazi: bat edo besteak zuen tiro egina, gure ustez beldur hutssez. Segidan han zen helikopteroa, aipatua dudan argibide ofiziera jautsi zen, erranez: «Amenez-moi ces deux prisonniers, qu'on se fende la pêche!» (sic) Gero nintzen egiazki izitu.

Handik geroxago, ez dakit zergatik, lasterka hasi ginen zelaian, fellagak bazirela norbaitek erranik naski eta ez zirela eskapatzera utzi behar. Agorrila zen eta unatuak ginen. Geroztik ene baitan ari izan naiz korrika horretaz, erranez eta hori Etiene Salaberri maiteak errepikatu perpausaz oroituz: «Laster egiten dut beldur naizelakotz ala beldurra hartu nau ja lasterka abiatua nintzelakotz?»

Beste bizpahiru oroitzen behar bada: bat Boussemghoun douararen miaketa, bi fellaga bazirelakotz han gordeak: egun osoa arizan ginen ate idekitzen, barne beltz miatzen eta ondarrean ur-zilo batean zeudela atzemanak izan ziren, ziloaren sahetsean praktikatu artekan: aste bat lehenago hango konpainiako soldado bat hila izan zen operazio batean eta gero miaketa egunean denak suntsitu zituzten hilaren lagunek pasatu ziren tokietan. Azken operazio bat aipatzekotan, hau naski: egun batentzat joanak ginen eta kanpamendurat itzultzeko tenorean jakin ginuen fellaga katiba bat bazela inguru haietan eta han berean lo egin ginuen. Mecheriatik etorriak ziren tropak, lauzka. Biharamunean ibili eta ibili,

1. Degustagarria haiz.

miatu eta miatu: deus. Gaua hor ginuela eta G. M. C. autoetara iragaiten ari ginea, komandantak erran zigun: «So mendiari:ikusten dituzuen argiak fellagenak dira». Lehereginak sartu ginen Chellalan, ja argi zela: gogoan bi obsesio genituen: kafe bat eta lo. Baina artean zirimola batek oihaletxea lurrera botatua zigun eta bi orenez, halako haserre isil batean arizan ginen egoitza eraikitzen: oroi naiz, anesthesiatuak bezala ginen eta laster ahanzten ziren une latzak, berriz abiatu beharrez.

Hortan utziko ditut gertaera zehatzak, beste batzuk burrustan heldu badira ere: hotza gauaz, mendi lepoan behar zelarik lo egin, harri lauzak landatuz haizearen ezkitzeko. Zeren egunaz bero bezain hotz zen gauaz, gain haietan eta gauza prosaiko bat aipatzeko, luzaz beheitikoak errautsiak egon ginen:oihaletxeetan, erdi biluzirik lokartzen ginen eta goizaldera manera horretan hotzak harra-patzen. Gero ziren zoin gehiagoko lasterketak kanpoko komunetarat! Behar da irri egin ere eta egiten ginuen pausaldietan: orduan ziren egun normalak, lasaiak. Jostetak, balentriak, elez bederen. Rami partidak, zigarretak pariatuz, etxera gutun idazteak, gezurrez beteak. Aitak halere izkiriatura zidan: «Egia dea hilak badirela zuen lekuetan?» Gero ziren baten edo bestearen pestakari edanaldiak, irrien eta kafararen nahasmenean eta holako. Gain gaintetik, gaitzeko adiskidantza gure artean: kalapita bat ez dut ikusi 1960-ko urtean zehar. Apezgai gisa lagun batzuen konfidentziak izan ditut, kapitaina beranena: erran zidan gerla horretan ez zela batere gostuan. Beste buruzagiak? Denetarik bazen, non nahi bezala. Soldado gisa behar zuten botere politikari obeditu eta, Indoxinan umilia-tuak izanik ez zuten beste gerla bat galdu nahi.

Eta, egun batez, Eguberri aitzin, «Partitzeko tenoria huna nun den jina!» Bidea orain, Ain-Sefratik Oranera. Ontzian sartu aitzin, lerrokaturik gaudela, ofizier batek erraiten digu: «Frantzian izanen zarete berriz. Trenean, zure herrietan, ez mintza egin, ikusi eta jakin gauzetaz. Badira non nahi beharriak».